

TOKIKOM

2017ko azaroa | 175. zenbakia

ai!kor!

txorierriko...ia

Sumiller zoriontsua



ASOCIACIÓN DE
SUMILLERES DE
BIZKAIA
BIZKAIAKO
SUMILLERRE
ELKARTEA





Marketin

Argitalpenak

teef
totoan



Komunikazioa

Ekitaldiak

-  **4** Eritxiak
-  **5** Gutunak
-  **6** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Txema Beriain, apaiza
-  **12** Gurean izan da... Joseba Apaolaza, aktorea
-  **14** Gaztea eta... Garazi Merodio, arkitektura ikaslea
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Asier Dañobeitia, sumillerra
-  **24** Zamudioko Rallya
-  **26** Belen Gana, euskara militantea
-  **28** Iratxe Gómez, *Siriren* ahotsa
-  **30** Euskararen Eguna
-  **34** Teknologia... OpenStreetMap euskaraz!
-  **35** Aikorrizketa... Euskara haizea da...
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



24 Zamudioko Rallya



26 Belen Gana, euskara militantea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarte
Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan,
Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: José Antonio Lekue, Idoia Andrés, Josu Uribe, Jon Goikouria Larrabeiti, Itallen bertso eskola, Alberto Elozegi, Gaizka Peñafiel eta Jose Angel Mentxaka

Erzuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esan-
nen edota eritxien erantzukizunik.

Bertatik bertara

Azken aldian bizitzako esperientzia gozo bi bizi ahal izan dodaz: bata, Eskozian; eta bestea, Katalunian. Bietan autodeterminazio eskubidea bururaino erooten, bozkutzen, ikusi ahal izan dot. Bi herri desbardin helburu berberagaz: independentzia. Nahiz eta bietan herritar multzo handi bat zentralista izan. Eskozian % 44,7, eta Katalunian milioi bi lagunetik gora independentziaren aldekoak agertu dira. Baina honeek emaitzak dira, ikusi eta sentidu ahal izan dodana beste gauza bat da. Gogoia, kementa, konbentzimendua eta indarra, eta honek danak, lortu daitekeen sentzazioa eragin deuste.

Kataluniakoa ez dakigu oraindik zelan amaituko dan, Eskoziakoak gehiengotik puntu gutxira geratu dira, baina bietan uste dot geldiezina dala independentziarako bidea. Burruka dialektikoa zuzen zuzenean ikusi ahal izan da bietan. Estaduek, nahiz eta desbardin jokatu Londresek eta Madrilek, daukien poterea erakutsi dabe, batak beldurtzeko argudioen bitartez eta besteak indarra eta errepresioa erabiliz.

Bitartean beste hirugarren motibo pozgarri bat be izan dot Gure Esku Dago erakundeak aurten Larrabetzun antolatutauan galdeketeagaz. % 58ko parte hartzea eta honeetatik % 94,2ak euskal esta-



JOSE ANTONIO LEKUE
(Baserritarra)

du burujabe bateko herritarra izatearen alde egin dauanean.

Badakit, ezin dirala hiru adibideak maila berean ipini, baina argi ikusten dodana da independentistek, bai Eskozian eta bai Katalunian burutu daben burruka dialektiko sakona, guk be hemen planteatu beharko dogula. Eta kanta harek esaten dauan moduan "hik bultza gogor hortikan eta nik bultza hemendikan..." praktikara erooten badogu, Estatu espainiarra dantzan jarriko geunke, eta ez leuke beste erremediorik eukiko nazin arteko araudiek esaten daben moduan, autodeterminazio eskubidea aitortzea baino.

Bertatik bertara entzun ahal izan dodaz independentziaren aldeko eta kontrakoan arrazoiak, euren arteko eztabaida sutuak (batez be Eskozian) eta azkenean demokratikoki nola erabagiten daben euren etorkizuna. Egin, egin leiteke horretara jartzen bagara.



Larrabetzuko herri galdeketea. a: Gaizka Peñafiel

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Aresti
Harategia
Urdaitegia

Oiz, 1. Zamudio
94 452 00 06

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi guinea

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiraleara arte:
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio · Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, AIKORI-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Missen neurriak


Gaur telebistako barrietan Perun egin-dako Miss lehiaketa anakroniko horreetako bat ikusi dot baina, zurtuta itzi naue-na izan da, desfilea erabili izan dabela emakumeonganako biolentzia salatzeke.

Bitxia eritxi deusot halako artifizialtasunetik halango gai larria salatzeke bidea-ri. Bikinia jantzita, bere neurriak esan barik, Perun hildako emakumeen zenba-kia eman du miss batek. Nire neurriak: "2.200 erahildako emakume dira", esan dau. Holan jarraitu dabe egiten neska ba-tek bestearen ostean. Normalean, mun-durako bakea gura dabela edo munduan goserik ez egotea izaten dira emoten dabezan erantzun hutsalak. Oraingoan, ezustea!

Asmoa ona izan da dudarik ez, auke-ratutako foroa, oster, mezuari zilegitasu-na kentzen deusola pentsetan nabilela, Gazteizen neska bat bortxatu dabela esan dau telebistak eta haserre pentsatu dot noz bukatuko dogun gatz honegaz. Urtea amaitzeko gitxi falta dauen hone-

tan, biolentziak hildako emakumeen da-tu hotza jakinazongo deuskue hedabide-en bidez, eta triste pentsatuko dot mis-sen neurri horreek nozko izango diren zero.

Garbiñe Larrauri



Pasa den urriaren 11n ezohiko Osoko Bilkuran Zamudioko lanpostu-zerrendan aldaketa garrantzitsu bat onartu zen, EAJren aldeko bozkekin eta EH Bilduren aurkako bozkekin. Orain dela hilabete bat-zuk, Zamudioko Udalak Eusko Jaurlari-tzari hala eskatuta, Zamudioko Udaleko Idazkaritzaren sailkapena hirugarren ka-tegoriatik bigarrenekora pasatzea onartu zen (Udalaren aurrekontuagatik); honen ondorioz, lanpostu bat aldatu behar izan da eta beste bi berri sortu.

Honen harira, LABek bere desadosta-suna adierazi nahi du sortu diren plaza berri biek (Kontu Hartzailea eta Diru-zaina) izango duten hizkuntza eskakizu-na dela eta. Izan ere, lanpostuok 4. hiz-kuntza eskakizuna izango dute, baina de-rrigortasun data barik sortu ditu Zamu-dioko Udalak. Horren ondorioz, euskara-

Administrazio euskalduna?

rik ez dakien norbaitek bete ditzake bi lanpostu horiek.

Goi mailako lanpostuak izanda, hauek betetzen dituzten langileek euska-ra ez jakiteak Udalaren barne funtziona-menduaren lan hizkuntzan eragingo luke, Udalaren beraren Euskara Planak zehazten dituen helburuetan ere ("etxe barruan ere euskara eguneroko lan-tres-na izatea nahiko genuke, funtzio erraze-netatik hasita") atzerapausoak eginez. Erabakiak, beraz, langileok euskaraz lan egiteko aukerak murriztu ditzake eta, orokorrean, Udalak euskaraz funtziona-tzeko helburua zehaztu gabeko data ba-tera arte geroratzen du. Aipatzekoa da, gainera, beste lanpostu gehienek badu-

tela dagoeneko derrigortasun data eza-rrita eta sortu berriak diren hauek, berriz, ez.

Ez dugu, beraz, EAJren erabakia uler-tzen. Beste irizpide guztien atzetik dator euskara? Langileak ondo prestatuta ego-tea eta euskara jakitea kontrajarriak ote dira? Lanpostuak betetzen dituztenek euskara ez badakite, zelan gauzatuko ditu euskaraz zerbitzua eman eta lan egi-teko helburuak?

Euskarak guztion ahalegina eskatzen du. XXI. mendean, administrazio elebidu-netan, kalitatezko zerbitzu publikoak ele-biduna izan behar du.

Zamudioko Udaleko LABeko atal sindikala

TABERNA GAZTEKI
Eguneko menuak
Ospakizunak
Arestialde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

Enaitz
TABERNA
Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak
94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

BOLALEKU
JATETXEA
13. URTEARRA
Garaioltza, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Jantziak
Facebooken
• Hainbat menu
• Karta
• Ospakizunak
• BOLAPARK

Loiu eta Zamarripa auzoa batzeko lanen bigarren fasea

Udalak lehiaketara atera du herrigunea eta Zamarripa auzoa lotuko dituen bidea eta bidegorria egiteko lanen bigarren fasea. Ibilbidea Asua-Erletxe errepide ondotik joango da, eta bidegorria eta espaloia edukiko ditu, guztira lau metro zabalekoak. Euri-urak hustutzeko eta argiteria publikorako azpiegiturak ere berrituko dira, baita seinale bertikalak ere.

Lehen faseak, dagoeneko amaituta dagoena, herrigunea eta ortu ekologikoak batu ditu. Bigarrenak espaloia eta bidegorria luzatuko ditu Lauro errekaraino. Ortuak igarota, ibilbide berria errepidearen ezker aldetik eskuin aldera pasatuko da. Zebra bidea eta seinaleak ipiniko dira bertan. Lanak hiru hilabetearen amaituta egotea espero da. Behin fase hori amaituta, hirugarrena puntu horretatik abiatuko da, Lauro errekararen gaineko zubia pasatu osteko puntutik hain zuzen ere. Laugarren faseak bidegorria eta espaloia lotuko ditu Asua-Erletxe elkargunearekin.

Puntuazioaren zain dago Lekue



a: Alberto Elozegi / iturria: XDZ

Azaroaren 19an, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalurrekoen bigarren itzuliari hasiera eman zitzaion Amurrión. Lehenengo saio horretan, Etxahun Lekue larrabetzuarra aritu zen hurrengo bertsolari hauekin batera: Jon Maia, Nerea Ibarzabal, Jon Martin, Beñat Gaztelumendi eta Sustrai Colina. Eginbeharrekoetan aldaketa izan zuten lehe-

nengo itzuliarekin alderatuz gero, izan ere, puntu emanda bakarka aritu beharrean, binaka aritu ziren puntutan gaia emanda hirugarren ariketan.

Puntu gehien Colinak eskuratu zituen; 701, hain zuzen ere. Gainerako bertsolariari dagokienez, Gaztelumendik 694,5 puntu eskuratu zituen; Maiak, 675,5; Ibarzabalek, 668,5; Martinek, 668,5; eta Lekuek, 615.

Bigarren itzulia hiru saiok osatzen dute, eta bertan lortutako puntuazioa lehen itzulikoari batuko zaio. Zenbaketa horrek erabakiko du nor izango den abenduaren 17ko finalean. Final horretan zortzi bertsolari arituko dira: 2013ko txapeladuna, Amets Arzallus, eta finalurrekoetatik puntuazioz sailkatutako zazpiak. Bigarren itzuliko lehenengo saioa eginda, Lekue sailkapenaren seigarren postuan dago gaur egun. Lehen itzulian, Maule-Lextarreko saioan, 656,50 puntu eskuratu zituen; eta Amurrioko saioan, 615. Orotara, 1.271,50 puntu lortu ditu. Gainontzekoek zer egiten duten zain izan beharko da, beraz.

Hurrengo saioak Donibane Lohizunen eta Iruñean izango dira, azaroaren 26an eta abenduaren 2an, hurrenez hurren.

GABONETAKO LOTERIA

aikor
tasorik gabeko loteria

91890

ERREKA **DONDO**
JAT **ETXEA**

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Izpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 Isonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com

IRATXO
gozotegia

karta personalizatuen
trufak
tsukak
pastelak
pastak

Mikel Lizarza, 2 - 3. Isonja - Sondika, 48150 - 94 543 89 10

Aterpetxeek 7.000 euro eman dute Lezama eta Larrabetzuko familia behartsuen artean banatzeko

Aurten, 2.134 erromesek erabili dituzte Lezamako aterpetxearen zerbitzuak; eta 2.758 erromesek, Larrabetzuko aterpetxearenak. Aterpetxeak Donejakue bideko ostatu-emaila boluntarioen elkartek kudeatzen ditu. Erromesek utzitako dohainak batu, eta elkartek 3.500 euroko diru-laguntza eman dio Lezamako Udalari; eta 3.500 euro diru-laguntza, Larrabetzuko Udalari. Jakinarazi duten moduan, kasu bietan dirua premiak dituzten herriko familien artean banatuko da. Hori Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuen bidez egingo da.

Bestetik, eta erromesen profilari dagokionez, Larrabetzuko aterpetxean gaua eman duten 2.758 lagunetatik, 1.234 emakumezkoak izan dira, eta 1.524, gizonezkoak. Era berean, 1.072 erromes Estatutik etorri dira; eta 1.686, atzerritik.

Bere aldetik, Lezamako aterpetxeak 2.134 lagun hartu ditu. Horietako 975 emakumezkoak izan dira; eta 1.159, gizonezkoak. Estatuko 867 erromesek eman dute gaua bertan; eta 1.267 atzeritarrek. Bai Lezaman, bai Larrabetzun Estatuko erromes gehienak Kataluniatik, Valentziatik eta Madriletik etorri dira; eta Alemaniatik, Frantziatik eta Italiatik, atzeritarren kasuan. Hala ere, Estatuko eta munduko beste herrietako lagunak ere pasatu dira aterpetxeetatik, hala nola, Balearretakoak, Gaztela-Mantxakoak, Murtziakoak, Kanadakoak, Australiakoak eta Argentinakoak. Bestetik, Euskal Herriko 76 lagunek erabili dute Larrabetzuko aterpetxea; eta 64 lagunek, Lezamakoa. Erromesak apirilaren 8tik urriaren 16ra bitartean pasatu dira Larrabetzutik; eta maiatzaren 29tik urriaren 1era, Lezamatik.

Loiuko mendi martxa

Bertako Udalak antolatuta, "Loiუმendi" mendi martxa bosgarren aldiz egingo da abenduaren 3an. Izena ematea doan izango da eta parte-hartzaileek motxila bana jasoko dute oparizat.

Hiru ibilbide atonduko dira: ibilbide luzea, 28 kilometrokoa; ertaina, 17 kilometrokoa; eta umeei zuzendutakoa, zortzi kilometrokoa. Izena ematea egunean bertan egin behar da Alonsotegi plazan. Martxa luzean parte hartuko dutenek 08:00etatik aurrera eman ahalko dute izena; martxa ertaina egingo dutenek, 08:30etik aurrera; eta martxa txikian ibiliko direnek 09:30etik aurrera. Marta luzea 08:30ean hasiko da; martxa ertaina, 09:30ean; eta martxa txikia, 10:30ean.

Parte-hartzaileei hamaiketako eskainiko zaie, indarrak berritzeko, eta opariak zozketatuko dira.

Euskal Herria kalea birmoldatuko da Derion

Beitu udal aldizkarian jakinarazi duten moduan, lanak azaroan hasiko dira, Aralar kalea eta Larrabarri ibilbideko tartean. Oinezkoentzat eta errepideko ibilbideak argitu eta bereizi egingo dira, eta aparkalekuak ere birrantolatu egingo dira. Lanek bost hilabeteko iraupena izango dute, eta espaloietako eta errepideetako zoladura eta asfaltatze osoa egingo dira. Seinalizazio bertikala eta horizontala ipiniko da, eta argiteria publiko, hiri altzariak eta lorategia berriztatu egingo dira. Lanek 269.000 euroko kostua izango dute, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 30.236 euroko diru-laguntza emango du.



auzoKide
Finken administratzailea
LORENA GAMBOA AGUIRRE
Txorisolo 4, behea B
48150 SONDIKA
634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala
Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

GALAIISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Sabino Arana 1-3. SONDIKA



Espaloiak egiten dabilta Lezaman

Orain dela aste batzuk hasiera eman zaie Kurtze auzoa eta Zamudio artean espaloi berria egiteko lanei. Herriko alkate Jon Ander Aurrekoetxeak adierazi duen moduan, tarte horretan zein Lezamatik Larrabetzurako bidean ere ez dago espaloirik eta, horregatik, beharrezkoa izan da lanak egitea, lezamatarrak tarte horietatik seguruago ibil daitezten. Izan ere, gaur egun errepidearen hegaletik ibili behar izaten dute, horrek dakarren arriskuarekin. Tarte bietan argiak ere ipiniko dituzte.

Kurtze auzoa eta Zamudio arteko lanak amaitzen direnean, Larrabetzurako bideko espaloia egiten hasiko dira. Aurreikusitakoaren arabera, lanak sei hilabeteren buruan amaituko dituzte. Udalak 555.689 euro ipiniko ditu lanetarako.

BocaBeats Comediak ETBra eman du salto

Pozik baino pozago dago Ivan Pérez derioztarra, izen artistiko moduan Iván Ivenían duena. Izan ere, ETB1ek *Gure kasa* gazteei zuzendutako saioa estreinatu zuen irailean, eta BocaBeats Comediak ere bere saiotxoak du programaren barruan.

BocaBeats Comedia Ivánek eta Aitor Majok osatzen dute. "Gure lana gizarte-sareen bidez jarraitzen zutela esan ziguten, eta nahi zutela guk programan parte hartzea", kontatu digu. "Proba batzuk egin genituen, baina guk egiten duguna ez zen guztiz bat etorri eurek nahi zutenarekin, eta azkenean neurrirra egindako saiotxoak asmatu zuten".

Iván eta Aitor astero joaten dira Euskal Herriko institutu batera, talentu berrien bila. "Gazteentzako ikuskizuna ematen dugu atsedendian eta gurekin aritzera animatzen ditugu. Ostean, castinga egiten dugu ateak itxita eta platora eramaten dugu gehien gustatu zaigun gaztea edo taldea. Denerik egin dezakete, abestu zein saltoak egin". Horrez gainera, euren ikuskizuna ere eskaintzen dute saioan. "Programakoek esaten digute zeri edo nori buruzkoa izatea nahi duten. Esate baterako, Michael Jacksonen abestietan oinarritutako lana egin dugu orain dela gutxi".

Ivánen esanetan, saioan parte hartzeak oso jende interesgarria eta famatua

ezagutzeko aukera eman die. "Esne Beltza taldeko Xabi Solano, adibidez, ezagutu dugu eta gure lana jarraitzen duela eta gustatzen zaiola esan digu... Ba, hori, izugarria da!". Bestetik, aurtan lan handia eduki dutela aipatu digu. "Gu orain dela 10 urte hasi ginen BocaBeats egitasmoarekin. Tabernetan aritu gara, festetan... eta udan, adibidea ipintzearen, 10 emanaldi-edo atera zaizkigu. Ba, aurtengo udan 40 emanaldi eduki ditugu... Lotu barik ibili gara batetik bestera...". Pozik egoteko modukoa da, bai horixe. Gainera, euren bideoak biral bihurtu dira eta ikustaldi pilo bat dituzte Interneten.



LARRABETZU
94 455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)

GOIALDE
PELUKERIA
Estetika
94 455 81 44
Argüen 2. behe Larrabetzu-Bizkaia

sarraila-denda Txorierri
ADITURK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNEAN
946 036 663
625 100 800
info@cerrajeriatxorierri.com
www.cerrajeriatxorierri.com
Alain Pomposo Zarate
Urkioa, 4 lorja
48160 Deno

FRUTAK BARAZKIAK
Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel
Gaztelumendi, 3 - behe | 48195 Larrabetzu | 94 455 89 19

Garmendia ardoak
Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

Espainiako areto-futbol hautatzaileak campus bat zuzenduko du Derion

Pozgarri eta Derioko Txorierrri futbol sala taldeek "José Venancio López" Derioko Campusa antolatu dute abenduaren 26tik 29ra bitarteko. Venancio bilbotarra Espainiako areto-futbol hautatzailea da. Campusa bost eta 16 urte bitarteko umeei dago zuzenduta, eta Politeknika Txorierrri Ikastegiko aretoan zein Derioko kiroldegikoan egingo da goizean, 9:00etatik 14:00etara. Campus-ean izen-ematea Derioko kiroldegian egin daiteke, baita e-postaz ere, helbide honetan: info@campusfutsaltactic.es.

Guztira, 70 euro balio du campusean parte hartzeak. Horren truke, gazteek hamaiketakoia izango dute egunero eta, gainera, entrenatzeko kamiseta bi eta diploma bat jasoko dituzte. "Bizkaiko goimailako teknikari batzuek saioak zuzenduko dituzte eta Venancio hitzaldiak eta azalpenak eskainiko ditu. Umeei saio tekniko-taktiko bi eta bideo-saio bat eman go dizkiegu goizero eta ostean, aretoan egingo dugu aurrekoetan ikasitakoia", esan digu Iñigo Martinez entrenatzaileetako batek.

"Venanciok Bizkaian campusen bat egiteko interesa zuen, eta Pozgarri taldekoek ere bai. Eta, zorionez, campusa antolatu ahal izan dugu. Nor eta Venancio Derion egotea ohore handia da. Herri horrek ez du areto-futbolean ohitura handirik, baina oso leku aproposa da campusa



egiteko. Izan ere, guk harrobia bultzatzea dugu helburu eta gainera, hemengo taldeek arteo-futboleko eskola jarri nahi dute martxan. Castron eta Zierbenan, areto-futboleko inguruko jaioterrietan, campusa antolatu eta gero sortu zituzten eskolak, esate baterako. Eskerrak eman behar dizkiogu Udalari laguntza itzela eman digulako", esan du Iñigok.

Lau aldiz, Europako txapelduna

Venancio mundu mailako erreferentzia da areto-futbolean. Venanciok hain-

bat talde entrenatu ditu –Castro, Caja Segovia, Autos Lobelle...– eta bere palmaresa ezin hobea da: Espainiako Liga, Europako Kopa eta Kontinentearteko Kopa behin irabazi ditu; Espainiako Kopa, lau aldiz; Espainiako Superkopa, hiru aldiz; eta Espainiako selekzioari dagokionez, lau aldiz irabazi du Europako txapelketa.

Informazioa:

Iñigo: 626068372 / Unai: 655725587
www.campusfutsaltactic.es

elekma
LARRAZTEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOKIAK
Lehenengo markak • Presorik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY
Txarri etorbidea, 25-3 N • 48180 Iruia
T: 944 539 232
www.elekma.es

TURREGOITI
JATETXEA
Lauroeta etorbidea, 27
48180 Leku-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoit.com

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.
Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ARTIZAR
MARKOAK IPINTZEKO TAILERRA
MARKOAK • MOLDURAK • GRABATUAK
LIKIDAZIOA
ERRETIROA HARTZEAGATIK
MARTITZEN ETA EGUENETAN, ZABALIK
Justo Ajuria, 3
644 24 36 30
48150 Sondika
Bizkaia

Bere irudia berritu du Sondikan Bertonek

Sondikako zerbitzuen, dendarien eta ostalarien elkarteak logotipo berria aurkeztu du, eta webgunea berriztatzen ere badabilta. Satur López elkartearen kideak azaldu digun moduan, irudiaz aldatzeko Sondikan Berton elkarteari identitate berria eta berezia ematea du helburu. "Orain dela bospasei urte, Udalak kanpaina bat ipini zuen martxan, merkatarien elkarte bultzatzeko. Pegatinak, lanpasa, poltsak... banatu ziren denda guztietan, baina herrian 70 negozio inguru badaude, elkartearen barruan 16 baino ez gaude eta batzuek zein besteok erabiltzen dugu irudi berbera. Elkartearen kideak garenok logotipo berriaren bidez bereizi nahi dugu beste negozioetatik". Horrela, bada, erabat irudi ezberdina sortu dute.

Hasieran aipatu moduan, www.sondikanberton.com webgunea berritzen ere badabilta. "Bertan elkartearen barruan dauden establezimendu guztien datuak azalduko dira, eta beren webgunetara joateko loturak ere egongo dira. Era berean, elkartearen gaineko informazioa eta haren helburuak azalduko ditugu, eta urtean zehar egingo diren ekintzen berri emango dugu". Gainera, kide berriak hartzeko kanpaina sustatu dute.

*Herriko
merkataritza
bultzatzen badugu
guztiok irabazten
dugu*



Gutun bat bidali dute negozio guztietara eta han elkartearen nondik norakoak azaldu dizkiete. Datozen hilabetei begira, bilera bat egiteko asmoa dute. "Zergatik egin elkartearen kide? Herriko merkataritza bultzatuz guztiok irabazten dugulako. Ideiak eta ekintzak aurrera ateratzea errazagoa da guztion artean egiten badugu, eta indar handiagoa edukiko dugu, gure eskaerak lortzeko orduan. Horrez gainera, elkartearen webguneaz eta gizarte sareez -Facebook eta Instagram- baliatu ahal gara, gure negozioa ezagutzera emateko, eta herrian zein Txorierri ezagunagoa izateko".

Saturren esanetan, ez da garai ona herriko dendetarako. Alde batetik, mer-

kataritza-gune handiekin lehiatu behar dute; eta bestetik, gero eta ohikoagoa da erosketak interneten bidez egitea. Nola-nahi ere, herriko dendek badituzte kontuan hartzeko hiru erreminta nagusi: hurbiltasuna, tratua pertsonalizatua eta profesionalen aholkua. Era berean, parte-hartze aktiboa dute herriko bizitzan. "Deskontuak-eta dituzten puxikak botatzen ditugu San Joan jaietan, 160 euroko saski bat ematen dugu Santa Kurtzeko jaietako marmitako txapelketan ...".

Azkenik, Saturrek argi utzi nahi izan du, irudi berria egin duten arren, asko eskertzen dietela bai Udalari, bai Behargintzari zein Txorierri Valley elkarteari Sondikan Berton elkartearen alde egin-dako lana, eta aurrerantzean ere haiekin lanean jarraitzeko asmoa dutela.

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribi 7, behe
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrekontuak doan
-Especialitatea:
umeak

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6



Txema Beriain Eciolaza | Artzain berria, auzoan

Orain dala hilabete bi, apaiz berria estreinatu du Txorierrik. Berrogeita hamasei urtekoa eta Idiazabalekoa (Gipuzkoakoa, gazta bezalaxe), Derioko San Isidro parrokiaren aurrean eta berokia kentzeko asmorik gabe, bere historia kontatu digu: Euskal Herriko Unibertsitatean Medikuntza ikasi ondoren, soldaduzka egin zuen. Bukatzean, bazekien bizitza erlijiora dedikatu nahi zuela, eta Erromara joan eta bertan apaiz ordenatu zen 1991n Juan Pablo IIaren eskutik. Txorierrin denbora gutxi eman duen arren, hemengo poztasun eta itxaropenaren egarri dela aitortu digu.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti / www.jongoikouria.com

Idiazabaldik dator gurera artzaina. Zereginik ez jatsu falta alajaina! Egin gurako dozu hemen lan bikaina artaldean murrizten ari jatsu baina.

Itallen Bertso Eskola

 **Hartz-klinika
IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hartz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

 **OPTIKA IKUSLAN**

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

 **ASADOR
FUENTENE** berria
"lor eta itsasoko baserria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta



LEKUNBIZAUZA 26
ZAMUDIO (BIZKAIJA)
☎ 94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Basernko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

 Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

“Euskal aktoreok derrigortuta gaude kanpora joatera”

t: Gaizka Eguzkitza / a: Borobil teatroa

Nolako garrantzia du aktoreentzat aretoaren neurriak? Gauza bera da Arriagan egitea edo Sondikan egitea?

Aretoa baino, askoz garrantzitsuagoa da nolako formatua duen zuk aurkezten duzun antzezlanak. Esate baterako, *Obabakoak* antzezlanaren egin dugu Arriaga Antzokian, eta hura areto handi batean bakarrik eskaini ahal duzu. *Fuera de juego* askoz txikiagoa da eta edozein lekutan taularatu ahal duzu. Beraz, funtsean ez da aldatzen antzezlanaren esanahia edo mamia, garrantzitsuena kontatzen duena delako. Ingurukoak laguntzen dizu baina antzezlan honetan ez da oso garrantzitsua. Dena dela, Sondikakoa bezalako areto txikietan publikoarekin lortzen dugun gertutasuna eskertzekoa da.


Futbola da istorioa kontatzeko bidea. Ez dago gaur egun futbol gehiegi?

Bai, agian bai. Eta gainera goraipatu egiten da: soldatak, inguruan mugitzen den dirua... Marxek esaten zuen erlijioa herriaren opioa zela, eta neurri batean futbolak erlijioaren lekua hartu du gaur egun. Dena dela, futbola istorioa kontatzeko aitzakia baino ez da: gure jokabideak, iskanbilak... Antzezlanak gaurkotasun handia dauka horrelakoak astero entzuten direlako. Antzezlanak balio du gure buruaz barre egiteko eta apur bat pentsarazteko. Eta ildo honi jarraituz, Athletic eta Errealaren eskutik ibili gara ikuskizuna eskaintzen, kontzientzia lana egiteko. Antzezlanak ikuspuntu didaktikoa dauka, nahiz eta helburu nagusia hori ez izan.

Futbolzalea zara? Horrek lagundu dizu antzezlanaren prestatzeko orduan?

JOSEBA APAOLAZA | aktorea

Azaroan, Borobil teatroak *Fuera de juego* antzezlanaren taularatu zuen Sondikan. Joseba Apaolaza da bere protagonistetako bat, Asier Hormaza eta Asier Sotarekin batera. Josebarekin hitz egin genuen, baina ez genuen jokoz kanpo harrapatu.



Asintze, 6 Inbisa Ind., C', 16-17, DERIO
688 847 633
WhatsApp Facebook
Muji
TAILERAK
%10eko deskontua * prezioak eta prezioak

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA
Lehendakari Leizaola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

ZAMUDIO
Loteria Nazionala
Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com



*“Euskaraz zein
gaztelaniaz ordu pilo
bat eman behar
dituzu ikasten eta
pertsonaia prestatzen”*

Bai, futbolazalea naiz eta futbola gutxi ezagutzen dut, batetik, nire seme batek futboleko jokatzen duelako; eta bestetik, ni ere izan nintzelako futbolari gaztetan. Eta horrek lagundu dit, noski. Antzezlan berezia da aktoreek sormen prozesuan hartu dugulako parte. Normalean norbaitek idatzitako testua antzeztzen dugu, baina *Fuera de juego* honetan, jolasen eta inprobisazioaren bidez sortu dugu istorioa. Eta hori oso erakaragarria iruditu zitzaidan hasiera-hasieratik.

Antzezlan gaztelaniaz zein euskaraz egiten duzue. Hizkuntza aldatzean,

ñabardurak galtzen dira? Zein nahia-go, euskaraz ala gaztelaniaz?

Ñabardurak galtzen dira, noski, hizkuntza batetik bestera aldatzean, baina jokoak eta txisteak moldatzen saiatzen gara eta emaitza antzekoa da. Nire ama hizkuntza euskara da, baina egia esan, denetarik egin dut eta batean zein bestean ordu pilo bat eman behar duzu ikasten eta pertsonaia prestatzen.

Hainbat lan egiteagatik zara eza-guna, bai antzerkian, bai telebistan zein zineman... Berdin dizu euskarria?

Bai, baina gehien egin dudana antzerkia da. Eta horri esker, pilo bat ikasi dut.

Askotan Euskal Herritik kanpo egin duzu lan. Behar-beharrezkoa da kanpora joatea?

Bai, dudarik gabe. Ondo badoakizu ere, kanpora joan behar da. Lehen hiru antzezlari egitearekin nahikoa zen, baina orain lau egin behar dira. Derrigortuta gaude, eta gure kasuan Madril da lan iturririk handiena.

Gelatik tauletara

Josebari (Urretxu, 1960) apur bat berandu etorri zitzaion aktorea izateko grina. “Txikitik ez nuen aktorea izateko ametsik, eta aukeratzeko ordua heldu zitzaidanean, magisteritzara jo nuen, beste desorientatu askorekin batera, boka-zio handirik gabe”. Josebak eskola aurreko espezialitatea ikasi zuen eta hori euskaraz egin zuen lehenengo belaunaldikoaren kidea izan zen. Horregatik, lan eskaintzak barra-barra etorri zitzaizkion eta lau urte eman zuen ikastetxe batean maisu lan egiten. “Barregarria da umeak antzerkiaren maisuak direlako: haiek jolasen bidez jabetzen dira bizitzaz (kar, kar)”.

Gipuzkoarra gustura zebilen lanean, baina “eguneroko errutinak” aspertzen zuen. Era berean, unibertsitateko garaian lehenengo pausoak eman zituen antzerkian eta gogo hori pixkanaka-pixkanaka hazi egin zen. “Etxean ez zidaten oztupo handirik jarri eta antzerkira egin nuen salto. Garai hartan, 1984an, erabakia hartzea zaila zen lan finkoa lortzeko aukera izan nuelako, baina tira... Gaur egun edozein lan da gorabeheratsua”.

Aztera begira, Joseba pozik dago ogibidea aldatzeko erabakiarekin. “Aktorea izateak jarraitzen du gorabeheratsua izaten, baina beste hainbat abantaila ditu: errutinarik ez dago, jende berria ezagutzen duzu, jendea hunkitzen eta entretenitzen duzu, istorioak kontatzen dituzu... Nire ogibidea ezin politagoa iruditzen zait”.

LEZAMAKO BATZOKIAK

Garaioitza 120 B
946561719
batzokilezama@gmail.com

40195 LEZAMA Berriz
Centro de estudios 3B

S.T.L. LEGU
ERANTZAZKINTZA ETA BERRA-LANERAK

Tf: 94 455 64 17 Tf: 94 455 61 98

LEZAMA

Garaioitza, 33 bis LEZAMA
620 15 36 93 - 94 633 81 07
9:00-20:00
www.centroecuestresolazpi.com
solazpi.zalditegia@gmail.com

Arkitektura sozialaren bidean

t: Itxaso Marina Ondarroa / a: G.M.A.

Derioztarrak betidanik eduki dau irudimen handia, marrazteko erraztasuna eta 3D bisualizazioa. Horregaitik ez da kasualidadea izan arkitekturea ogibideztat aukeratu izana. Ikasketak Donostian hasi ebazan, baina SICUE programaren bidez Sevillako unibertsidadera ailegatu zan, eta hango metodologia hainbeste gustau jakon, ezen bere espedientea unibertsidade horretara helarazteko eskatu baiteban. Bosgarren urratsetan dago gaur egun, eta hiru irakasgai eta gradu amaierako lana baino ez jakoz faltatzen, karrera amaitzeko.

"Horreek guztiak ikasturtearen bigarren lauhilekoan pilatu jataz, eta kanpoan bizi izatea oso garestia danez, gurasoak adostu neban lehenengo lauhilekoa bertan emongo nebala, eta praktikak-edo egiten ahaleginduko nintzala". Halan eza-gutu eban Baltistan Fundazioa eta Pakistanera bidaia egiteko aukerea etorri jakon.

"Fundazioa amaren lagun baten bitartez ezagutu neban. Proiektu ezbardinak dabaz Pakistanen, Baltistan eskualdean, eta horreetako bat Machule herrian 600 ikasleak hartuko dauzan institutu bat eraikitzea da. Nik proiektuan parte hartuko nebala argi egoanean, fundaziotik deitu eusten esateko egitasmoan beste arkitekto bat arituko dala: IMB estudioko Gloria Iriarte. Orduan, ni hasi nintzan beragaz batera proiektua diseinatzen eta bere estudioan praktikak egiten".

Proiektua egiteko, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) ikasle batek orain dala urte batzuk egindako karrera-amaierako proiektuan oinarritu dira. "Hango mendiak harritsuak dira, eta 2010ean euriteek lur-jauziak ekarri ebezan eta berrogei etxebizitza baino gehiago sun-



GARAZI MERODIO AYARZA | arkitektura ikaslea

Garazi 23 urte dauz, arkitektura ikaslea da eta irailean Pakistanen izan da, Baltistan Fundazioaren bidez parte hartzen dabilen proiektu bat *in situ* ikusten. Proiektu hori ez ezik, bere ilusinoak eta asmoak be euki doguz hizpide.

tsitu ziran. Baltistan Fundazioari esker, 25 etxebizitza berreraiki ziran. Hara topografo bat, EHuko ikasle bat eta irakasle bat joan ziran, eta ikasleak karrera-amaierako proiektu moduan aurkeztu eban egitasmoa. Gu, gaur egungo beharrianak kontuan hartuta, bere lanean jasotako informazioaz baliatu gara, gure proiektua egiteko".

Institutua 2.640 metro karratuko lur-sail baten altxauko da. Dagoaneko, eraikin bi dagoz eginda eta bertan zortzi ikasgela atondu dira. Garazik beste 24 ikasgela hartzeko proiektu bat diseinatu

du. "Idea da moduluzko eraikinak egitea, eta horreek finantzazioa lortu heinean altxatzea". Lanak otsailean hastea espero dabe. "Gaur egun, kalean ikasten dabe, eta abendutik otsailera ez dago eskolarik, bertan, hil horreetan, zero azpiko 20 gradura ailegaten dalako".

Aberasgarria

Pakistanera egindako bidaian, politikariakaz-eta hainbat bilera eukitzeaz gainera, hango lan egiteko modua ezagutzeko aukerea euki dau Garazik. "Pentsau behar da, gugaz alderatuta, kultura eta





*“Arkitektoak
gizartearen
mailara jaitsi
behar dau”*

*“Partaidetzagaz
eta ezkerreko
mentalidadeagaz
funtzionatu
behar dogu”*

eraikuntza arloetan 60 urteko atzerapena dabela. Ondorioz, hormigoia booma bizi ari dira. Baina hormigoia ez da bape ekologikoa –gainera, Machulu herria oso altitude handian dago eta operatibo handia erabili beharko zan materiala hara eroateko-, eta guk bertako eraikuntza motari jarraitzeko proposamena egin dogu. Hau da, hormigoia erabili beharrean, adobe, egurra, harriak... erabiltea, eta teknikea hobetzea. Halanda be, guk ez dogu azken berbea eukingo. Guk adierazo deutsegu zelan egingo geunken eta beren teknikea zelan hobetu daiteken. Gero, eurek erabagiko dabe halan egin gura daben, edo halan egiteko baliabiderik daben”.

Garazi oso pozik dago, proiektua zein bidaia oso aberasgarriak izan diralako. “Alde batetik, oraindino ez dot karrerea amaitu, eta nik Gloriagaz batera diseinutako proiektu bat egia bihurtuko da. Eta bestetik, proiektu solidario bat zelan egiten dan ezagutzeko aukerea euki dot.

Eta hori batez be gustau jat, izan be harremana ez da izan ohiko bezeroakaz izaten dan harremanaren modukoa. Han gure eskarmentua partekatu egin dogu. Hareek, beharbada, ez dabe arkitektura ikasketarik izango, baina saiakuntza- eta errakuntza-metodoa erabilita, badakie zelan egin behar diran gauzak eta halan jakinarazo egin deuskue. Eta guk be gure ezagutza eta ikuspuntua jakinarazo deutsegu, gero gura/ahal/dakiena egin dagien. Halako trukaketek zer pentsatua emoten deutsue”.

Partaidetza

Arkitekto on bat izateko, asko bidaia-tu behar dala pentsetan dau Garazik, eta kultura eta arkitektura mota ezbardin asko ezagutu behar dirala. Horregaitik ez dau argi non amaituko dan. Halanda be, argi dau arkitektura sozialean ibiltea gustauko litxaioke, eta lagunakaz zerbait sortzea. Baita Mugarik gabeko arkitektoen alkartearen moduko egitasmo bateko

partaide izatea. “Arkitektura sozialean gaineen berba egiten dodanean, jentearen partaidetzagaz egiten danaren gainean ari naiz. Nire ustez, partaidetzagaz eta ezkerreko mentalidadeagaz funtzionatu behar dogu”. Hala, arkitektoa lurrera jaitsi behar dala uste dau. “Ez da Jainkoa. Gizartearen mailara jaitsi behar dau, akabuan gizarte izango dalako bere eraikinak-eta erabiliko dituana. Eta gizartearen eritxia kontuan hartuta diseinatu behar dau. Prozesua motelagoa izango da, beharbada, baina hobea be bai. Eraikin batek polita izateaz gainera, atsegina be izan behar dau alako; barrura sartzeko eta hor egoteko gogoa biztu behar deutsu”.

Arkitektura gauzak aldatzeko baliagarria be badala uste dau. “Kaleak, esate baterako. Leku batetik bestera joateko erabilten doguz, edo tabernetako terrazan egoteko. Eta ezagunen bategaz topo egiten badogu, apur bat berba egin eta berehala jarraitzen dogu gure bidetik. Bada, kaleak sozializatzeko lekuak be badira, nire ustez, eta hareen diseinuak aldatu daike gaur egun dogun sozializatzeko modu hori”.

Esperimentazioa ukitea gustauko litxakion beste arlo bat da. “Aulkiak kalera atera eta jenteak zelango erantzuna dauan ikustea, adibidez”. Eta arkitekto moduan dauazan abileziak gizartearen arazoen konponbideari ekarpena egiteko erabiltea. “Beno! Hori guztia esaten dot oraindino oso gaztea nazalako eta amets egiteko denporea dodalako. Aitak esaten deust horreek ez deustela dirurik ekarriko! (kar, kar).

“Baietz lortu! 60 egunean euskaraz olgatzten!”

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren egitasmoan parte hartuko dute, Udalekin elkarlanean, Txorierrri Basketland saskibaloit-taldeak eta CD Sondika, Derioko Arteaga, Zamudio KE, Lezamako Bizia eta Larrabetzuko Uritarrak futbol-taldeek. Horiek guztiek 60 egunean jolasean eta kirol-giroan euskara erabiltzera animatuko dituzte ume, gazte eta gurasoak; horretarako, entrenamendu eta partidetan euskaraz aritu nahi dutenek pegatina bereizgarriak eramango dituzte.

Txorierriko sei kirol-klubek, Udalen laguntzarekin, jolasean eta kirol-giroan euskararen erabilera sustatuko dute 60 egunean, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak abian jarritako “Baietz lortu! 60 egunean euskaraz olgatzten!” egitasmoarekin. Hala, entrenamendu eta partidetan euskaraz jardun nahi dutenek bi pegatina mota eramango dituzte bereizgarri gisa. Pegatinetako batean, baloi bat mikrofonoarekin agertuko da, eta beti euskaraz hitz egingo duten baina euskaraz zein gaztelaniaz entzuteko prest dauden haiek identifikatuko ditu. Bestalde, baloi bat aurikularrekin agertzen den irudiak, bai euskaraz bai gaztelaniaz entzuteko eta hitz egiteko prest dauden haiek identifikatuko ditu. Azkenik, pegatinarik ez daramatenak prest egongo dira gaztelaniaz entzuteko eta hitz egiteko, baina elkarriketa batean euskaraz aritu nahi dutenen aukera errespetatuko dute, hala badagokio, euskarazko elkarriketak gaztelaniara itzultzeko eskatuz.

Egitasmoari Txorierriko bost futbol-talde batu zaizkio (CD Sondika, Derioko Arteaga, Zamudio KE, Lezamako Bizia eta Larrabetzuko Uritarra), eta Txorierrri Basketland saskibaloit-taldea ere bai. Pegatinak berariaz diseinatu dira kirol-modalitate bakoitzerako.

Jokoaren planteamenduak bide ematen du kirol-erakundeetan modu aktiboan nahiz pasiboan jarduten duten pertsonen parte har dezaten: zuzendaritzako kideek, boluntarioek, entrenatzaileek, jokalariek eta gurasoek.

Jolasean bi konpromiso mota hartuko dira kontuan, kirol-erakunde bakoitzak aukera izan dezan euskararekin jolas egiteko. Horrela, pegatinak entrenamenduetan eta partidetan banatuko dira, eta

deialdi berezia egingo zaie gurasoei zelaira bertaratu daitezten eta horrela beraiek ere dagokien pegatina hautatzeko aukera izan dezaten.

Plana hasiko den astean, klubek ahallegina egingo dute komunikazioari dagokionez. Horretarako, komunikazio-kanpaina bat jarri dute martxan, eta sare sozialen bitartez programaren berri jakinaraziko dute. Gainera, entrenatzaileek konpromiso bikoitza hartu dute: alde batetik, entrenamenduaren aurretik euren pegatina aukeratzea eta, bestetik, entrenamenduen aurretik jokalariei zer egin behar duten gogoraraztea. Horretarako, aldagiletan mahai bat jarriko da pegatinaz betetako bi kaxarekin, baita informazio-kartel bat ere.



Egitasmo honen bitartez, jarraipena eman nahi zaio Txorierriko hainbat udal eta kirol-klubek eguneroko bizimoduan euskararen presentzia areagotzeko egin duten apustuari. Hain zuzen ere, euskararen erabilera indartu nahi da aisialdian, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki, eta zehazki kirolaren arloan. Jolasaren bidez, euskara eta aisialdia uztartuko dira, eta haur, gazte nahiz heldu euskararen erabileraren inguruan sentsibilizatuko dira, bai modu aktiboan bai pasiboan.

Behin egitasmoa bukatuta, lortutako emaitzak aztertuko dira, parte-hartzaileei inkesta bat pasatuz eta elkarriketa pertsonalatuak eginez. Horrela, aurrera begirako erronkak zehaztu ahal izango dira.

AZAROAK 26 IGANDEA

"LARRABETZUKO ONDARE
LINGUISTIKOA"
LIBURUAREN AURKEZPENA
12:30etan ♦ Jubilatuen etxean

EUSKARAREN EGUNA TXORIERRIN 2017 AURTEN LARRABETZUN

AZAROAK 30 OSTEGUNA

MAHAI INGURUA
EUSKARAREN EGUNGO EGOERA
Partaideak: Eneko Bidegain, Garbiñe
Petriati eta UEMAko kide bat
19:00etan ♦ Angulerin



ABENDUAK 1 OSTIRALA

PIRRITX ETA PORROTX
"BOROBILEAN"
Larrabetzuko guraso elkarteak antolatuta
Sarrera: 8 €
18:00etan ♦ Frontoian

TABERNA IBILTARIA
20:30etan ♦ Jubilatuen etxetik hasita



ABENDUAK 2 LARUNBATA

"ERDIBANA"
ANTZERKIA
José Ramón Soroiz / Iker Galartza
19:00etan ♦ Eskolako jantokian



ABENDUAK 3 IGANDEA

EUSKARAREN EGUNAREN ADIERAZPENA
13:00etan ♦ Plazan

GAZTELUMENDI ABESBATZA ETA UMEAK

"EZ DA KASUALITATEA" BERTSO SAIOA
Bertsolariak: Alaia Martín, Onintza Enbeita,
Miren Amuriza, Oihana Iguaran.
Gai jartzaile: Amaia Agirre
Musikariak: Ixak Arruti eta Gari Otamendi
19:00etan ♦ Eskolako jantokian



ESKOLAK

AZAROAK 27 ASTELEHENA ASIER KIDAM MAGOA

10-11 urtekoak
9:30 / 11:00



AZAROAK 28

ASTEARTEA
ZIRIKA ZIRKUS
PAILAZOAK
4-5-6 urtekoak
9:30 / 11:00



AZAROAK 29

ASTEAZKENA
"PETRESKU ETZI EZ ETSI"
ANTZEZLANA
7-8-9 urtekoak
9:30 / 11:00



ABENDUAK 4 ASTELEHENA

"PO HESIETATIK"
IKUSKIZUNA
DBH 2. maila



ABENDUAK 5 ASTEARTEA

"TXORIERRITMOZ" MUSIKA TOPAKETAK
Vendetta taldeko PEIO REPARAZ,
MARIA RIVERO musikariarekin
Aurkezlea: Ugaitz Alegria
DBH 4. maila



“Beranduko mahats- biltzeko sumillerra naz”

ASIER DAÑOBEITIA | sumillerra

Txorierrin ardogile eta upeltegi ederrak doguz. Eta horren haritik, jakina, goi-mailako sumillerrak be badoguz. Iñaki Suarez larrabetzuarra aitzindaria izan zan, baina atzean, Asier Dañobeitia lezamarra etorri da. Asier interes askotariko gizona da, eta azkenean bere bokazinoa topatu dau: ardaoak liluratzen dau eta gaur egun aditua da horretan.

t/a: Gaizka Eguzkitza / a: A. D.

Asier (Lezama, 1970) Estarta base-
rrian jaio zan, txakolin mahastien artean.
Usain hori bere umezaroan oso esangu-
ratsua izan arren, Asier nahiko berandu
murgildu zan ardaoaren munduan. “Ho-
gei urte nebazala ez neban jakin zer egin.
Beraz, Ingalaterrara joan nintzan, Lady
Ryders Fundazioaren eskutik. Erresuma
Batuan, gaixoak jagoten ibili nintzan,
mundu osoko beste 200 boluntariogaz

batera. Bide batez, ingelesa ikasi neban
eta esperientzia ikaragarri bat bizi izateko
aukerea euki neban. Gainera, gaur egun
nire emaztea dan Lucia bertan ezagutu
neban”, esan deusku lezamarrak, irribar-
tsu.

Asierrek pare bat urte emon ebazan
Ingalaterran, auzolana egiten. Ondoren,
Bilbo eta Portsmouth herriaren arteko
ferryan zerbitzari ibili zan emazteagaz.
Eta sei urte beranduago, 1999an, Atarrabi
taberna sortu eban Sondikan, anaiagaz,

Unaigaz. Hori dala-eta, aditu egin da os-
talaritzan. “Iraultza ederra egongo da gu-
re sektorean. Beraz, tabernok zerbait des-
bardina eskaini beharko dogu, espeziali-
zazino handia beharko dogu. Orain arte,
bezeroei kaskarkeria baino ez deutsegu
eskaini eta, ondorioz, jentea ez da lehen-
go moduan ataraten, eta horreek guztiak
barriro harrapatzeko, produktu bikainak
eskaini beharko deusaguz. Bizkaian, 175
biztanleko taberna bat daukagu. Hori
ezin da mantendu. Balio erantsia emon

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIN UDAL
EUSKALTEGIA



Handia
FILMA

Euskarazko ESTREINALDIA,
Txorierrin!

DOAKO sarrera

Azaroaren 30ean, eguena
Derioko Gurea aretoan
Goizeko 10:00etan
Arrastiko 18:30ean

ERDU GEUGAZI



ASOCIACIÓN DE
SUMILLERES DE
BIZKAIA
BIZKAIKO
SUMILLERREN
ELKARTEA

*“Tabernok zerbait
desbardina eskaini behar
dogu, espezializazio
handia behar dogu”*

*“Steve Jobsek esaten
eban aurrera jarraitu
behar dala, gura
dozuna topau arte”*

*“Sumillerrok talentua,
baikortasuna, sormena
eta umiltasuna
behar doguz”*

behar deusagu gure tabernari, baina iparra galdu barik”.

Tabernari esker, Asier bere benetakoa bokazinoagaz jabetu zan. Baina sumiller egiteko erabagia egun batetik bestera hartu eban. “Steve Jobs Apple enpresako sortzaileetako batek zera esaten eban: *Keep hungry, keep foolish*; jarraitu gose, jarraitu ero. Hau da, aurrera jarraitu, gura dozuna topau arte. Ni beranduko mahats-biltzeko sumillerra naz. Ia 40 urte bete arte itxaron behar izan neban, bizitzan zer egin gura neban jakiteko. McDonalds enpresaren jabeak 65 urte zituela jarri eban martxan lehenengo hanbureseria (kar, kar). Ez dakizu inoz bizitzak zer ekarri ahal deusun”.

Lehenengo sumiller tituluduna

2006an, Asierrek Artxandako Ostalaritza Eskolak eskainitako lehenengo sumillerren ikastaro espezialista egin eban. “Bizkaiko lehenengo sumiller tituludunak izan ginan. Nigaz batera, besteak beste Eneko Atxa eta Mugarra, Simon Txakolina eta San Mamés jotetxeetako sumillerrak be ibili ziran ikastaroan. Gaur egun, erreferenteak dira gehienak. Han Iñaki Suarez handia ezagutu neban. Iñaki maisua da. Nire ustez, baikortasuna, talentua, sormena eta umiltasuna adierazoten dauz. Eta horreek dira, hain zuzen



be, sumiller on batek behar dauzan ezau-garriak”.

Jenteak pentsatzen dau sumillerrak ardaotan dirala adituak, baina hori baino askoz zabalagoa da sumillerra izatea. “Danetarik jakin behar dogu: ardaoa, garagardaoa, puru habanoak, ogia, olioak, edari mozkorgarriak... Eta hori guztia bezeroari eskaintzen jakin behar deusagu. Eta horretarako, aitatutako ezaugarriez ganera, intuizinoa da oso garrantzi-

tsua. Bezeroek ez dabe taberna zehatz baten sartzeko beharrik. Horregaitik, harripau egin behar doguz, zerbait guztiz desberdina eskainita. Eta zure tabernatik alde egiten dauanean, bezeroak gustura egon behar dau. Gauzak behar moduan egiten badozuz, hori espero baino sarriago gertatzen da. Jentea aspertuta dago, eta sormena eta baikortasuna behar dauz; bestela, zertarako aterako da etxetik? Intuizino hori esperientziari esker hartzen da.

Lezamako txakolinaren enbaxadorea

Aurten, Lezamako txakolinaren enbaxadore izendatu dabe Asier, eta horregaitik, sumillerrak "ohore handia" sentidu dau. "Non eta zure jaioterrian hori lortzea ez da erraza. Itzela da. Askotan hiltzen zaranean egiten deusuez omenaldiak eta niri, zorionez, orain heldu jat ohore nagusia. Txakolingile batzuek esan deuste enbaxadorerik onena nazela. Oso hunkigarria da. Ardura be ekartzen deust, baina gogor egingo dot lan gure upeltegiak ahalik eta gehien babesteko".

Asierrek, zelan ez, ongietorria egin deustso aurtongo uztari. "Lezama itzela da: 2.200 biztanle gara eta bost upeltegi dagoz. Eta txakolingileek ederto egiten dabe

lan: mahasgintza itzel hobetu dabe, mahatsen heltzea ederra da... Aurten mahatsa batzen egon naz eta, mahatsen maila ikusita, ziurtatu ahal dot aurtengo txakolina bikaina izango dala".

"Gure txakolina berezia da itsasoko zein mendiko eragina dogulako: Lezamako txakolinak garbiak, freskoak eta garrazak dira. Hunkitu egiten dabe, betikoak dira. Eta lurraren zati bat dastatzen dozu

trago bakoitzean: Larra-betzura bidean dagoen mihilua, ondo heldutako sagarra, arabisagarra... Nire ustez, txakolin guztiak -arabarrak, gipuzkoarrak zein bizkaitarrak- dira onak, bako-txa bere eran. Eta bate-ra joan beharko geun-ke, produktua batez be kanpoan saltzeko or-

duan. Ezin gara joan Alemaniako azoka batera nork bere txakolina saldu guran. Bizkaiko txakolinaren arerioa ez da Gipuzkoakoa edo Arabakoa, ura edo garagardoa baizik. Kontsumoa jaitsi da, hori da larria".

Etorkizun oparoa

Asierrek uste dau gure txakolinak etorkizun oparoa daua. "Txikiak gara, guztion artean 400 hektarea baino ez dogu txakolina ekoizteari zuzenduta; Errioxan, bodega askok dabe 400 hektarea bakoitzeko, ardaoa egiteko. Halanda be, mundu mailan, gure garraztasunaren inbidia dabe. Gaur egun dogun txakolina ez da lehen egiten zana. Gaur egun, hainbat mota daude: freskoa eta garratza, aperitibo hartzen dana; upelean hartzituak; beranduko mahats-biltzea... Maite-minduta nago txakolinagaz".



Adibidez, dastatzailerik onenek 60 urte baino gehiago dabe".

Sumillerrek zentzumen guztiak behar dabez, ez bakarrik dastamena. "Gauzak ikusi egiten dira eta itxura erakargarria izan behar da. Gero, ardaoa usaindu behar da, eta hori argia izan behar da, baita zaporea be. Zaporea gelditu behar da apur baten ahoan, bestela ardao horrek ez dau arimarik eukiko". Eta edaria hartzen dauan kopea be funtsezkoa da. "Atarrabi

tabernak Bizkaiko txakolinaren zerbitzurik onena eskaintzeagaitik jaso eban saria. Edari bakotxa hartzeko, hainbat gauza hartu behar dira kontuan: zenbat denbora daukadan hori edateko, aurretik bazkaldu dodan ala ez...".

Sumillerren ikastaro espezialista egin arren, Asierrek autodidaktatzat jotzen dau bere burua. "Egunero nabil ikasten, gauzak irakurtzen, liburuetan, Interneten... Gaur egun nahiko erraza da, informazioa

eskuragarri dagoalako". 2015ean, Asier Bizkaiko Sumillerren Alkartean sartu zan eta urte berean, Bizkaiko Txapelketan hartu eban parte. Azkenean, hirugarren postuan amaitu eban. Asier batez be ardaoan eta txakolinean da aditua eta gomendio batzuk emon deuskuz. "Batzuek liluratu egin nabe eta horreetako hiru aitatuako dodaz: 1999ko Tokaji Oremus ardaoa; Jean Louis Chave Hermitage Syrah, 2000koa; eta hemengo txakolinarik ez

esateagaitik, gomendatuko neuke 2012-ko Lexardi Hondarrabi zerratia”.

Ardaoa

Bai, ardaoa liluratu egiten dau Asier. “Ardaoa gozamina da eta momentu gozo baten hartu behar da. Eta ardaoa gustetan ez bajatzu, ez da ezer gertatzen, garagardaoa edan, edo beste gauza bat, bardin deutso, zure gustukoa dana. Etiketarik ataraten garan bakotxean ondo pasatu behar dogu. Ardaoa, botila baten sartuta, lurraren adierazlerik onena izan behar da, hau da, Txorierriko txakolina hartzen badozu, lurraren mamia dastatatu behar dozu: mihilua, mingostasuna, garraztasuna, mineralitatea...”

Eta bere lurraren adierazlea bada, ardao guztiak dira gozoak, Asierren berbetan. “Autoei gertatzen jaken moduan, gaur egun, eskura doguzan teknikak kontuan hartuta, ez dago ardao txarrik. Baina defendatu behar dogu nork bere ezaugarri propioak eskaintzea. Esate baterako, Bizkaiko txakolinak Bizkaiko txakolinaren zaporea izan behar du, eta Borgoñako ardaok, Borgoñako zaporearena. Eta

“Sumillerrok danetarik jakin behar dogu: ardaoa, garagardaoa, puru habanoak, ogia, olioak, mozkorgarriak...”

“Ardaoa, botila batean sartuta, lurraren adierazlerik onena izan behar da”

“Nik ez dot lanik egiten, nire ogibidea nire pasinoa dalako. Eta oso zoriontsu sentitzen naz horregaitik”

hori askotan gertatu jaku, zoratu egin gara eta beste ardao mota bat egin gura izan dogu. Eta Frantziako lagun bat badator, ez dau chardonnay bat hartu gura, hemengo ardaoren bat baino. Eta chardonnay bat eskatzen badau, zerbait egin dogu txarto”.

Asier ezin da geldirik egon eta tabernatik kanpo be egiten dau behar. “Danetarik egiten dot. Esate baterako, ardaok aztertzen dodaz Excell-Ibérica laborategietarako. Nigaz, beste 24 dastatzailek egiten dabe behar. Aurten, 2017ko uzta aztertuko dogu eta gure emoitzen arabera txakolina merkaturatuko da, edo ez. Ganera, dastatze pribatuak egiten dodaz, bai nire kabuz, bai enpresa batzuek. Era berean, hainbat ekitalditan hartzen dot parte, edariak prestatzen eta horreen inguruan azalpenak emoten. Azkenik, ardaoa be saltzen dot Bizkaia mailan. Nik ez dodaz jai egunak eta astegunak bereizten. Ken Robinsonek *El elemento* liburuan esaten dauan moduan, nik ez dot lanik egiten, nire ogibidea nire pasinoa dalako. Eta oso zoriontsu sentitzen naz horregaitik”.



Konekta zaitez gurekin!



Facebook:
aikoraldizkaria




Twitter:
@Aikortxorierrri



Instagram:
aikor.aldizkaria



Webgunea:
www.aikor.eus



Zure argazkiak eta albisteak bidali




WhatsApp:
688 86 41 35



E-posta:
aikortxori@aikor.com

Parte hartu aikor.eus webgunean

Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.


Txus Jaio, Zamudioko Rallyaren irabazlea



Txus Jaio irabazlea.



Xabier Lujak auto ikusgarri bat ekarri zuen.



Jonathan Gago.



Ugaitz Basaras txorierritarra.

a: Josu Uribe

Rallya Zamudio Racing eta Real Peña Motorista Vizcaya elkarteek antolatatu zuten bosgarren aldiz, eta puntuagarria izan zen lau txapelketatarako: Rally euskal txapelketa, Rally Bizkaiko txapelketa, Sport Erregularitasunaren euskal txapelketa, eta Sport Erregularitasunaren Bizkaiko txapelketa.

Irteeran 60 auto batu ziren, eta rallya Txus Jaio eta Jesus Urkidik osatutako bikoteak irabazi zuen (Euskadi Racing). Bigarrenak Aitor eta Mireia Salazar izan ziren (Hamaika); eta hirugarrenak, Iñaki Narbaiza eta Unai Etxeberria (Eskuderia Eibar). Victor Echave eta Mikel Arza, Zamudio Racingekoak, laugarrenak gelditu ziren.

Talderik azkarrena Xabier Agirrek eta Mikel Basterrak osatutakoa izan zen, eta Xabier Mujikak jaso zuen pilotu juniorrik onenari saria.

Bestalde, Erregularitasunaren saioari dagokionez, Ricardo Pérezek eta Jesús María Landak irabazi zuten trofeo kategorian; eta Asier Santamariak eta Isaías Bringasek, txapelketa kategorian.

Hotza handia egon arren, eguraldia lagun eduki zuten antolatzaileek. "Oso pozik irten gara rallyarekin eta eskerrak eman nahi dizkiegu laguntzaileei eta babesleei".



Ezkerretik eskumara: Angel Gurrutxaga, Euskadiko Automobilismo Federazioetako presidentea; Igotz López, Zamudioko alkatea; Jesús Urkidi eta Txus Jaio, irabazleak; Jabier eta Haizea Aretxabaleta, babesleak; eta Egoitz Mozo, antolatzailea.



Irabazleek moto istripu batean elbarri gelditu zen gidariari omenaldia egin zioten.



Victor Echave.



Eder Santos.



Lander Cortazar.

"Euskeraren alde lanean jarraituko dot; neure bizitza da"

BELEN GANA | euskera militantea

Sondikoztar jaiotzez; halanda be, eta baserria lekuz mugidu barik, loiuhtar bihurtu zan aireportuaren kapritxoagaitik. Baina Belen batez be txorierritarra da, "haraneko edozein herritan gustura nagoelako". Iralera arte Txepetxa AEK euskaltegiaren zuzendaria izan dana giltzarria izan da Txorierrin euskeraren normalizazio bidean. Erretiroa hartu barri dagoala, irakasleek, ikasleek eta lagunek omenaldi hunkigarria egin eutsien bere urtebetetze egunean.

t: Itxaso Marina / a: Roberto Gómez "Txiki"

Lagun pilo bat batu zan urriaren 28an, zure urtebetetze egunean, Baserri Antzokian zuri omenaldia egiteko. Hunkituta?

Bai, itzela izan zan. Eskertzekoa da agur horretan nigaz hainbeste jentek egon gura izatea.

Hirurogeta sei urte bete dozuz. Zenbat euskerearen alde lanean?

Oso gazte hasi nintzan, 15-16 urte nebazala. Herri Gaztedin sartu eta ikusi genduan herrien euskerea galtzen ari ginala, askok euskeraz bakarrik etxean egiten genduala, eta pentsau genduan berreskuratu behar genduala. Eskola xumeak emoten hasi ginan, gero gau eskolak, eta apurka-apurka modu antolatuagoan hasi ginan Txorierriko herri guztietan. Lantegietan be hasi ginan eskolak emoten. Borondatez egiten genduan. Hainbat bilera euki genduzan, eta Euskaltzaindiatik eskola horrek, gramatika, modu egokian emon behar zan kezka zabaldu zan... Halan sortu zan AEK, eta gaur egun arte.

Txorierrri zelangoa zan garai hatan? Txorierrri zelangoa da gaur egun?



Eskolako lagun gehienok euskeraz egiten genduan etxean, baina eskolara sartu eta gaztelaniaz derrigorrean egin behar. Gainera, batzuk hasi ziran gaztelania hezkuntza kultua zan mezua etxean zabalitzen, euskerea baserriko gauzea za-

la. Euskerea galtzen joan jakun... Eta gaur egun, guztion artean lortu dogu euskereak bere lekua hartzea, D eredua, lantegietan euskera eskola gero eta gehiago eskatzea... Baina oraindik badogu lana, ez dogulako lortu euskerea kalean

R P A
MAYORISTAS INFORMATICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

HARAGITEGIA
URDATEGIA
IMAZ
MUNIZIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik asko
etortzeagaitik

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK
lasai
Luis M° Asensio
Terapeuta naturopata
Larrabarri, 1 Ionia - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

*“Euskera guztiz
guztiz normalizatzea
dogu irabazteko
oraindik”*

*“Maila gainditzen
ez daben ikasleek
be diru-laguntza
jasotzea da nire
kezkarik handiena”*



guztiz normalizatzea. Izan be, esaterako, askotan denda batera sartu eta automatikoki gaztelaniaz egiten dogu, aurrean dagoanak euskeraz dakien galdetu barik. Hori irabazteko dogu oraindik.

AEKn ibili zara sortu zanetik. Ez da erraza AEK-ko irakaslea izatea, ezta?

Ez, baina badago jentea, nire moduan, AEKn sinesten duguna, eta AEKn sendo eta gogor gabiltzana. AEKn lan egitea ezbardina da, gramatika eskolez gainera mila kontu dagozalako: batzarrak, ekitaldiak, mintzamena lantzea, ikasleei euskal kulturea, geografia, literatura... helarazotea, euskeraz egiteko konpromisoa hartu dagiela lortzea, eta hori pozik egitea... Hau da, ikasleek euskerea euren egin eta euskeraz bizi daitezala lortzea. Bestetik, diru-arazo handiak be eduki doguz, gaur egun hobeto gagozan arren. AEK Euskal Herri osoko egitura da eta boltsa beretik banatzen jake herrialde guztiei; halanda be, egoerea ez da berdina Euskal Autonomia Erkidegoan, Iparraldean edo Nafarroan...

Eta zalantzan ipini zan zuen lana...

Hori kontu politikoa izan zan, argi eta garbi. Espainian ikusi eben gure lana oso

garrantzitsua zala, eta gu oinarria izan ginala euskerea berreskuratzeko ekimenean. Borondatezko lana be ez eben ulertzen eta ekonomia erabili eben guri eraso egiteko. Dana dala, AEK oso txertatuta dago gaur egun herrian eta herritarrek badakie euskerearen alde lan egin, lan egiten eta lan egingo dogula. Guk be muga handiak ipini geuntsazan geure buruari, soldatapeko irakasle bihurtu ginanean... AEKra lanera datorrenak euskara militantearen ezaugarriak bete behar ditu.

Pozgarria be bada?

Bai, nik oso pozik egin dot lan AEKn. Nahiz eta kezka handiak eduki eta momentu txar asko pasatu... Garzonek ipinitako isuna ordaintzeko, loteria saltzen ibili ginan, txosnak ipinten, gau eta egun gogor lan egiten erdia kobratuta... Osterantzean, pikutara joango ginan. Eta danon artean lortu genduan, eta orain nasaiago egiten dogu lan.

Konpondu bako arazorik badozu?

Egia esan, bai. Ikasleei emoten jaken diru-laguntzea nire kezkarik handiena izan da azken urteotan, eta halan jakinarazo deusiet bertoko politikariei. Maila

gainditzen dauan ikasleak diru-laguntzea jasoten dau Jaurilaritzatik, Aldunditik eta Txorierriko Mankomunidadeetik. Nire us-tez, Mankomunidadeak diru-laguntza horreek emoteko erabilten dituan irizpideak berrikusi egin beharko leukez, eta ahalegindu dan ikasleari be diruz lagundu, maila gainditzea lortu ez dauan arren. Izan be, badagoz ikasleak klasera etortzen diranak eta egundoko ahalegina egiten dabenak, baina arrazoi batengaitik edo beste batengaitik maila igoten ez dabenak. Aurrera jarraitzeko animau beharrean, diruz zigortzen dira. Mankomunidadeak diru-laguntzak humanizatu egin beharko leukez.

Belenen zer geratu da Txepetxa euskaltegian?

Ene! Txorierri osoko ikasle ohiak gu-gaz parte hartzea ekitaldietan, hamabietako kafea, arduradun moduan bakardadean hartu beharreko erabakiak partekatzeta, ikasleei harrera positiboa egitea, lagunakaz, seme-alabakaz... euskeraz egitera animatzea, motibatzea... Ez dakit, hori eurek esan beharko leukie. Nik, neure aldetik, eskerrak emon gura deusdez ibilbidean izan dodazan lagun eta laguntzaileei.

Euskeraren alde lanean jarraitzeko prest?

Jakina! Hori neure bizitza da. Tximintx Derioko euskera alkartean jarraituko dot, Altzora Sondikako euskera alkartean, Gure Esku Dago ekimenean, sortzen diran egitasmoetan... Euskaltegitik be pasauko naz eta behar daben guztian lagunduko deuset.





t/a: Itxaso Marina Ondarroa

Siriri, iPhoneko laguntzaileari, ahotsa ipintzeagatik egin zara ospetsu. Hala ere, zure ahotsa aurretik ere egon da entzungai, besteak beste, nabigazio-sistemetan. Zelan etorri zitzaizun aukera?

Kasualitatez. Ikasle baten ama, on lineko banku-zerbitzu baterako, gaztelaniazko zein ingelesezko grabazioak egiteko gauza izango zen pertsona baten bila zebilen, eta ni aukeratu ninduten, nire doinua hizkuntza bietan oso neutrala zelako. *Call center* baterako testuak sortzen hasi nintzen haiekin, testua ahots bihurtzen zen eta nahiko prekariora zen gailu bat (TTS) erabilita. Fonetika eta fonologia arloan zituen akatsak antze-man nituen, eta pentsatu nuen zergatik borrokatu makina batekin, nik grabazioak lehenengoan eta ederto egin ahal baditut?

Eta horrela sortu zen Mónica izeneko TTSA.

Bai, grabazioak nik neuk egiteko esan zidaten eta TT Sari ahizpa txikiaren izena

IRATXE GÓMEZ CASADO | *Siriren ahotsa*

Aurten, oso pertsonaia berezi batek eman die hasiera Zamudioko San Martin jaiei: *Siri*, Appleko gailuetan laguntzen digun aplikazioa. *Siri*, edo gauza bera dena, Iratxe Gómez zamudioztarra. Pazkokoak 3.0ko jaiak izan dira.

ipini zioten, nirea oso komertziala ez zelako. TTSA nabigazio-zerbitzuetan erabiltzen hasi zen eta goi mailako autoetan ere ipini zen. Kalitateari eta “nolabaiteko” luxuari lotu zen eta orduan Applek interesa erakutsi zuen, Sirirekin erabiltzeko.

Baina zu “azkena” izan zinen Siriren ahotsa zinela jakiten.

Txinan bizi ginela enteratu nintzen. Espainiako telebista kate bateko saio bat ikusten geunden eta iPhone bat erabili zuten truku bat egiteko. *Neu naiz!* Baina gauza da nire ahotsa leku guztietan topatzen dudala: Osakidetzara deitzen dudanean, aurretiko hitzordua eskatzeko; Ogasunera deitzen dudanean, aitorpena egiteko hitzordua eskatzeko... Behin bai-

no gehiagotan esaten didate nire ahotsa oso ezaguna egiten dela. *–Zurekin aurretik ere egin dut berba, ezta? – Ez. –Baietz, neska! –Beno, bai, baina ez (kar, kar).*

Eta txantxa handia egongo da lagunaren artean.

Oso handia. Gainera, batzuk gorritu ere egiten dira, Siriri inoiz astakeriaren bat esan diotelako. *–Ai ene! Ze lotsa! Nik esaten dizkizudan gauzak jakingo bazenitu! –Ez larritu. Ez ditut entzuten (kar, kar).*

Zure ahotsa duen aplikaziorik erabiltzen duzu?

Erosi dugun autoaren nabigatzaileak, esate baterako, nire ahotsa du. Baina hori amatatzen amaitzen dugu beti, izan ere, azkenean, oso iragarria da zuk zeure bu-

*“Lagun batzuk gorritu
ere egiten dira, Siriri
inoiz astakeriaren
bat esan diotelako”*

ruari entzutea. Gainera, ni oso zorrotza naiz eta programatzaileak ondo egin ez duela topatzen badut, amorru handia ematen dit.

Beno, eta zure ahotsa ez bada ere, irrigarria izan daiteke makina batekin hitz egitea.

Eta pena da, halako aplikazioek auke-
ra asko ematen dizkigutelako. Ez diegu probetxu guztia ateratzen.

Zelakoak dira grabazioak?

Esaldi osoak grabatzen ditugu eta, gero, esaldi horiek soinutan banatzen dira. Helburua hau da: hizkuntzaren fone-
ma bakoitzak izan ditzakeen aukera guz-
tiak jasotzea, gero, makinak horiek atze-
man eta kateamendu zuzena egin dezan. Prozesu luzea da. Hasieran, hiru aste eman genituen egunero bospasei ordu-
ko grabazioak egiten; hurrengo bost ur-
teetan saioak ez ziren hain luzeak izan, baina estudioan sartzen ginen bakoitzean 2.500-5.000 *tip* grabatu behar geni-
tuen.

Anekdotarik?

Futbolari batek eskatu zuen bere GPSaren ahotsa sexya izatea. Hiruzpalau egun eman nituen Alemanian, autoaren nabigazio-sistema guztiak grabatzen. Gainera, arazoak antzeman eta tailerrean hitzordua eskatzeko gai den autoa izan zen. Beraz, pentsa ezazue zelakoa den, ahots sexya eta robotikoa erabilita, hu-
rrengoa grabatzea: zure *pneumatikoen* *presio* ezberdina dutela antzeman egin dut. Nahi duzu tailerrean hitzordua eska-
tzea? (kar, kar).

*“Nire umore-sena
eta Sirirena
oso antzekoak
direla diote”*

Aiba! Barkatu nire ezjakintasuna, baina nik pentsatzen nuen zuk ahotsa normal grabatzen zenuela, eta gero programak robot ukitu hori ematen ziola.

Ez, neu naiz androide-moduan (kar, kar). Grabazioak egiteko orduan, tonu neutroa eta aseptikoa erabili behar da; beraz, den-dena sorgortasun horrekin grabatu behar da.

Probetxua aterako diozu robot ahots horri, ezta?

Behin baino gehiagotan. Batez ere dei komertzialak hartu nahi ez ditudane-

an: 677... telefono zenbakira deitu duzu (kar, kar).

Umore-sena baduzu.

Oso handia. Ahizpak iPhone bat erosi zuen eta esaten zidan nirekin hitz egiten jarraitzeko modu bat zela (ni Txinan nengoen). Eta nire umore-sena eta Sirirena oso antzekoak zirela. Behin esan zidaten, gai nintzela edonor pikuta bidaltzeko, eta hori poz-pozik egi-
tea lortu (kar, kar).

Ondo pasatzen da grabazioetan?

Bai, asko gustatzen zait. Gainera, ba-
daude oso dibertigarriak diren momen-
tuak. Adibidez, behin Ingalaterrako hiri guztien izenak grabatu behar izan nituen, ingelesa ez nekien itxura eginez. Izenak idazten diren moduan irakurri behar izan nituen, izan ere, aplikazioa-
ren erabiltzaileak izen horiek ahoska-
tzen diren moduan entzun nahi baditu, ingelesezko bertsioa erabiltzen du eta kito. Erronka bikoitza izan zen kasu ho-
rretan.

Iratxe

Zamudioztarra Dulantzín, Araban, bizi da gaur egun eta orain dela hila-
bete gutxi hasi da Unibazq agentzian lanean. Hori Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia da. “Internalizazio laguntzailea naiz ber-
tan eta, besteak beste, agiri guztiak hiru hizkuntzatan –euskara, gaztelania eta ingelesa– egoteko ardura daukat, eta tituluek Boloniako Planean ezarri-
takoa bete dezaten. Oso interesgarria da, hezkuntza beste ikuspuntu batetik ikusten nabilelako: lehen irakaslea nintzen, eta orain irakasleak eta hez-
kuntza sistemaren kalitatea ebaluatu behar ditut. Dena da oso ezberdina

eta erantzukizuna ere oso handia da”.

Izan ere, Iratxe ingeles irakaslea da. Akademietan hasi zen eta lanak Estatu Batuetako institutu batera era-
man zuen lehenago, eta Txinako uni-
bertsitate batera geroago. Euskal Herrira itzuli zenean, Lanbiden ibili zen langabetuei heziketa ematen. Irakasle lana eta ahots grabazioak uztartu ditu urteetan. “Baina kontua amaitu egin zen, dagoeneko merka-
tuan Siriren hiru bertsio berri daudela-
ko. Egia da marka batzuentzat oso inportantea dela ahotsa fidelizatzea, eta haiekin grabazioaren bat gehiago egin dudala, baina gero eta gutxiago dira, euren datu-basea oso zabala delako. Dena dela, aukerarik badator, egingo dut, noski”.





Jose Ramón Soroiz eta Iker Galartza,
Erdibana antzezlanean.

Ekintzei azaroaren 26an emongo deusie hasiereara. Egun horretan, eta 12:30ean, *Larrabetzuko ondare linguistiko*a liburua aurkeztuko dabe Jubiladuen etxean. "Larrabetzuko azken 100 urteetako euskerea jaso da bertan eta, horretarako, hainbat alkarrizketa egin jake herriarrei. Lan potoloa da, bost lagunen artean egin dabena. Bost urte emon dabez alkarrizketak egiten eta materiala jasotzen".

Euskerearen egoerea azaroaren 30ean aztertuko dabe Anguleri kultur etxean, 19:00etan, egingo dan mahai-inguruan. Ekitaldian Eneko Bidegain idazle eta kazetariak, Garbiñe Petriati Behatoki-ko zuzendariak eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) Iratxe Ibarrak hartuko dabe parte. Abenduaren 1ean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen txanda izango da. Frontoian ikuskizun berria aurkeztuko dabe 18:00etan: *Borobilean*. Txispamendi gurasoen alkarteak antolatutako ekintzea da hori. "Ostean, Taberna Ibiltaria arituko da. Giro polita sortuko dala uste dogu, pailazoen ikuskizunera hurbiltzen diran familiek bat egingo dabelako "musika saio ibiltariagaz". Gainera, umeek betiko kantak ezagutze-ko aukerea eukiko dabe".

José Ramón Soroiz eta Iker Galarza aktoreek *Erdibana* antzezlanak ekarriko

Euskeraz eta ozenki

Euskerearen Eguna Larrabetzun ospatuko dogu aurten. Txorierriko Mankomunitateko Euskera Zerbitzuak egitarau oparoa prestau dau Larrabetzuko Kultur Bilgune eta Darabilgu lantaldeagaz batera. Txorierritar guztiei zuzendutako ekintzak izango dira eta Laura Martinezek, euskera teknikariak, azaldu deuskuz gakoak.



Zirika zirkus taldea.



*Aurrekoetan moduan,
eskoletako eta
instititutako
ikasleentzako saioak
be egongo dira*

deuskue abenduaren 2an. Hitzordua es-
kolako jantokian ipini dabe 19:00etan.
"Oso antzezlan erakargarria da eta akto-
reak be ezagunak baino ezagunagoak
dira. Jentea erakarriko dabe, ziur. Baina
arratsalde horretan Bertsolari Txapelketa
Nagusiko finalaurrekoen azken saioa
izango da eta ez dakigu guk bertsozaleek
kale egingo ote daben...". Seguru aski,
horreek zein gainontzeko txorierritarrek
galduko ez daben ekitaldia domeka
arrastiko bertso saioa izango da. Baina
hori baino lehen, goizean, euskerearen
aldeko adierazpena irakurriko da
13:00etan, plazan, eta ostean, Gaztelu-
mendi abesbatzak eta umeek musika
emonaldia eskainiko dabe. Arratsaldean,
eta lehen esan moduan, bertso saio
musikatua egongo da Alaia Martin,
Onintza Enbeita, Miren Amuriza eta Oi-
hana Iguaran bertsolarien eskutik: Ez da

sarreraren
salmenta

www.bbk.es

bbk



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELODEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago

ANTZERIA

ALIZIA LURRALDE MIRESGARRIAN
Glu glu Teatroa
Hauerrentzako ipuin musikala euskaraz
Abenduak 17, 17:00
Prezioa: 6 €





DEEP
93' AG (2D)
Abenduak 3, 17:00



LA LIBRERÍA
115' (2D)
Abenduak 3, 19:30



SAGU ETA PAGU
AG (2D) **EUSKARAZ**
Abenduak 10, 17:00

LA LIGA DE LA JUSTICIA
121' (2D)
Abenduak 10, 19:30

ASESINATO EN EL ORIENT EXPRESS
116' (2D)
Abenduak 17, 19:30




2D: 4 € 3D: 6 €

*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldatuak izan daitezke



Po Hesietatik ikuskizuna.

kasualitatea. "Bertso saio berezia da eta emakumeen ikuspuntutik dago landuta. Zoritxarrez, askotan kostatzen da bertso saioetarako emakume bertsolariak topatzea, eta, ikuskizunaren izenburuak adierazoten dauan moduan, ez da kasualitatea oholtza gainean ibiliko diran bertsolariak eta gai-jartzailea be emakumezkoak izatea. Musikariak be egongo dira. Oso saio polita da eta uste dogu jentea hurbilduko dala". Eskolako seigarren mailako ikasleak bertsolaritza lantzen dabiltza ikasgelan eta hareek edukiko dabe bertsolariak publikoari aurkezteko ardura. Bertso saioa 19:00etan izango da eskolako jantokian. Euskerearen Eguna abenduaren 3a da, eta saioak amaiera bikaina emongo deutse ospakizun ekintzei.

Eskoletan

Txorierriko eskoletako eta institutuko ikasleek be eukiko dabe zer ikusi eta zertaz disfrutau. "Azaroaren 27an, Asier Kidam magoa ekarriko dogu 10-11 urteko gaztetxuentzat. Aurretik be izan da Txorierrin eta, egia esan, oso mago ona da.

*Adin eta gustu guztiei
zuzendutako ekintzak
izango dira: mahai-
ingurua, antzerkia eta
bertso saioa, tartean*

Zirika Zirkus taldeko pailazoez lau urtetik sei urtera bitarteko umeentzako saioa aurkeztuko dabe azaroaren 28an, eta hurrengo egunean, azaroaren 29an, *Petresku etzi ez etsi* bertso antzezlan eskainiko da zazpi urtetik bederatzi urtera bitarteko umeentzat. Antzezlanean, Errumaniatik Euskal Herrira etorri dan neska baten eta bere familiaren gorabeherak azaltzen dira.

Po Hesietatik ikuskizunak, poesia, olerkia eta inprobisazioa uztartzen ditu. DBHko bigarren mailako ikasleentzako saioa da eta hareek aldeaz aurretik, ikasgelan, landu beharko dabe zein gairen gainean arituko diran saioan. Hori abenduaren 4an izango da. Azkenik, *Txorierritmoz* musika topaketak egingo dira abendua-

ren 5ean, DBHko laugarren mailako ikasleentzat. Vendetta taldeko Pello Reparaz eta María Rivero musikaria solasean ibiliko dira gaztetxuekin eta beren galderak erantzungo dabez.

"Aurreko urteetan moduan, aurtengo egitarauak herritar guztien parte hartzea bultzatzea du helburu, ahalik eta adin-tarterik zabalenetara ailegatu, mota ezberdinetako ekintzak antolatu, eta euskeraren erabilera sustatu". Horren haritik, hain zuzen be, aitatu beharra dago euskerearen erabilerak jarraitzen dauala konpondu bako kontua izaten. "Euskerearen ezagutzea igo egin da Txorierrin, gero eta jente gehiagok daki euskeraz, baina, beste herri eta eskualdeetan gertatzen dan moduan, beste gauza bat da erabilera. Ekintzak egiten dira hori bultzatzeko, esate baterako, Berbalagun egitasmoa edo orain esku artean dogun *Euskara 365 egun* egitasmoa, halanda be... Nire ustez, gakoa norberarengan dago. Txipa aldatu behar dogu, bai modu pertsonalean, bai familian zein lagunen artean, lehenengo hitza beti euskeraz izan dadin. Eta bideak topau behar dira horretarako".

Euskerearen Egunaren inguruan antolatutako ekitaldiek gure hizkuntza errebindikatzeaz gainera, beren ekarpena be egingo dabe txip aldaketa hori gero eta gertuago izan daiten. "Eskerrak emon gura deusdez egitarauaren antolaketan parte hartu daben guztiei. Oso ekintza erakargarriak doguz eta, eguraldia lagun, espero dot jentea Larrabetzura hurbilduko dala".

Alaia Martin, Onintza Enbeita, Miren Amuriza eta Oihana Iguaran bertsolariak.



Anari eta Ituiño magoa, Derion

Aurreko alean esan moduan, Tximintx Derioko euskera alkarteak Derion AHORA kanpaina ipiniko dau martxan azaroaren 30etik abenduaren 3ra arte. Kanpainak herrian bizi edo lan egiten daben 365 lagunek aitatutako egunetan euskera hutsez aritzeko erronkari eustea dau helburu. Egitasmoa bat dator euskera alkarteak Euskerearen Egunaren haritik antolatutako ekitaldiakaz.

Halan, kanpainaz gainera, Anari-
ren kontzertua be egongo da Tximintxen eskutik. Kontzertua abenduaren 1ean, 21:30ean, izango da Txorierriko Baserri Antzokian, Derion. Sarrerek zortzi eurotan ipiniko dira salgai Txepetxa AEK euskaltegian eta Baserri Antzokian. Kontzertuaren egunean bertan 10 euro balioko dabe.

Bestetik, magia ikuskizuna be antolatu dabe Euskerearen Eguna ospatzeko. Imanol Ituiño magoak saio ibiltaria eskainiko dau tabernaz taberna, abenduaren 1ean, 21:30etik aurrera. Magoa taberna honeetan arituko da: Irintzi, Adarve eta Sugoi. Azkenik, abenduaren 3an, ekitaldi nagusia egingo dabe 13:00etan. Datozan egunotan, xehetasun gehiago emango dabez.

Bere aldetik, Txorierriko udal euskaltegiokoak *Handia* filma ikustera

joango dira azaroaren 30ean. Filma egun horretan estreinatuko da euskeraz Derioko Gurea aretoan. Emanaldi bi egongo dira: bata, goizeko 10:00etan; eta bestea, arratsaldeko 18:30ean. Sarrera doakoa izango da emanaldi bietan.

Aurreko lerroetan aitatutakoak azaroko alea itxi orduko jaso doguzan ekin-
tzak dira. Ziur asko, gainontzeko herrietan be ekitaldiak antolatuko dira. Beraz, adi egon!



Imanol Ituiño
magoa.



Anari.



Urtzagale Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DERIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



ZIENTZIAK BATXILERGOA LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio teknikaria
Erdi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Produzioaren Programazioko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmenten eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)



OpenStreetMap, OSM izenarekin ere ezaguna dena, lankidetzan egindako proiektua da, mapa libreak eta editagarriak sortzeko. Izan ere, egunero erabiltzen diren doako mapa asko ez dira libreak, muga legal edo teknikoak dituztelako, eta jendeak ezin ditu horiek modu sortzailean edo produktiboan erabili. OpenStreetMap proiektua egoera horri konponbidea emateko sustatu zen, hor jaso-

*OSM lankidetzan
egindako egitasmoa
da, mapa libreak
eta editagarriak
sortzeko*

tzen diren datu geografikoak edonoren esku ipiniz.

OpenStreetMap bost milioi erabiltzaile inguru dituen proiektu irekia, soziala eta erraldoia da. Proiektua herritarrek egindako ekarpen librearen bidez doa aurrera, eta aurrerantzean ekarpen horiek euskaraz ere egin ahalko dira, Azkue Fundazioari esker. Fundazioak, Euskal Wikilarien Kultura Elkartearekin elkarlanean, sistema osoa eta berarekin sortzen diren aplikazioak euskaratu egin ditu.

Webgunean topatzen diren mapak GPS gailu mugikorretatik, orto-argazkietatik eta bestelako doako iturrietatik aterako informazio geografikoa erabiltzaileek sortu dira. Era berean, erabiltzaileek euren ekarpena egiten dute. Kartografia hau Open data Commons Open Database License (ODbL) lizentzia irekiak babesten du gaur egun, sortu diren irudietan

eta datu basean gordetzen diren datu bektorialei esker.

Aukera ederrak

Ekarpenak boluntarioak dira, eta modu irekian eta partekatuan egiten dira. Boluntarioek sortzen dituzten mapak milaka zerbitzutan erabiltzen dira egunero, baita Wikipediaren barruan berriki sortutako mapa interaktiboetan ere. Mapa horiek euskaraz ere badaude orain, eta horrek aukera ederrak ekartzen dizkigu euskal hiztunoi.

OpenStreetMap egitasmoaren parte-hartzaileek inguruari buruzko ezagutza partekatzen dute komunitatearekin, biztanleei zein bisitariei informazio erabilgarria eskainiz. Egitasmoan parte hartzeko, http://wiki.openstreetmap.org/wiki/Eu:Main_Page webgunean sartu eta ekarpenak egiten hasi baino ez da egin behar.

EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
saboria

9€

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO

T: 94 454 55 55

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOZOGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98
Fax 94 454 14 18

Mungialde etorbidea 25
48160 DERIO

Nice Autocasion

**IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA**

MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92

www.niceautocasion.com info@niceautocasion.com

Euskara haizea da, mugimenduan bizi da

t: Juan Luis Goikoetxea

Altzoko Handiaren neurriko haize-sorgailu erraldoiak ikusten ditugu gaur egun. Umezaroan, osteran, ur errotak, boluak, ezagutu nituen; gero Getxoko Aixerrrota –haize errota–. Orduko errota, haizeak nahiz urak erabiltzen zuen. Orain, berriz, haize errota itsasoan ere ipintzen dira, ura eta haizea adiskidetz.

Baina, zer gertatuko litzateke haizea edo ura geldi egonez gero? Ur geldia us-teldu egiten da; ez dabilen haizeak ez darabil ezer; ez badabil, ez darabil. Eta euskara haizea lakoa, bezalakoa balitz, zer?

Haizea mugitzen den airea da, eta euskara erabili egiten den hizkuntza. Ez badabil, ez da bizi. Irakasleak ikasgelan itauntzen duenean: Badakizu nola sor-tzen den tifoia? Bai! erantzunak ez du balio ze, irakasleak berriro galdetuko du:

Ea azaldu, berbalizatu. Orduan kontura-tuko zara ulertzen duzun ala ez. Barruan daukaguna berbalizatzen badakigu, ulertzen dugu. Noiz dakigu euskara? Erabili egiten dugunean. Erabiltzen ez bada, zer da? Hitz egin esaten dugu, ez hitza jakin. Jakitea airea da, eguratsa, geldi dagoena. Euskaldun izatea ez da akto akademiko soila –gainditu eta kito–; euskaldunak berbaz erakusten du mina, abestiz poza, bertsoz hitzen kirola. Zertarako dituzu “bihotza”, “lantzana”, “maitea” hitzak zeure ahotik inoiz ateratzen ez badituzu?

Erabili egiten badugu, Txorierriko euskara lau haizetara zabalduko dugu. Euskaldun bakoitzak berba egiten badugu, putz egingo dugu; denon artean bul-tzatuko dugu haizea. Gero, etorriko dira beste batzuk guri jarraitzen, “Nora haizea, hara oihala” errepikatzen, eta sortuko dugu, behingoz, euskararen haize bola-da.



BC FUN Fitness Gym

Saio pertsonalizatuak, entrenatzaileen eskutik

BCF entrenamendu funtzionaleko gunea (HIIT makinak, kirola funtzionala...)

Taldeko BCF saioak (zirkoa, zumba, fitbox...)

BCF kardiobaskularrak (high intensity eremua, indoor triatloia...)

BCF muskulazioa

700 m²-ko eremua

628836753 - 944520815

3. nabea, 9. kutsaila, Ugaldeguren II
48170 ZAMUDIO

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORRIIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai jarraia Facebooken

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, orokorrean
Auzokoen konpostatzeak
Mantentze garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Oliniko amaierako garbiketa
Basturak
Zabur bilera

Besaide Plaza, 1 - B^a Aldekona
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

KAFETEGIA

IAZI JATETXEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

MARMOLGINTZA GOYO

SUKALDE-GAINETOAK OBRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind, 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

Etxeko sukaldaritza

Zerbaren orri-mamiak,
arrozez eta hegaluzez beteak

t: M. Lekerika / a: hoycocinamosjuntos.com

Osagaiak (lau lagunentzat):

–16 orri-mami (garbituta, hariak kenduta eta egosiak)

Betegarria egiteko:

–Kipula handi bat (xerra meheetan ebagia)
–Piper berde bi
–100 g kuiatxo
–50 g arroz egosia
–200 g hegaluze oriotan
–Arrautzak
–Ogi arraspata
–Orioa
–Gatza

Saltsarako:

–Kipula handi bat
–4 zerba orri (10 minutuan egosiak)
–300 ml salda edo ura
–Orioa
–Gatza

Prestetako area:

Kipulea oriotan erregosiko dogu eta eginda dagoanean, piperrak eta kuiatxo gehituko doguz. Biguntzen diranean arroza eta hegaluzea gehi-



tuko doguz. Beharrezkoa bada, gatza zuzenduko dogu. Betegarria zortzi orri-mamiren gainean zabalduko dogu, eta horreek beste zortziakaz estaliko doguz. Orri-mamiak arrautzatik eta ogi arraspata pasau eta orio ugaritan prijutuko doguz. Saltsea egiteko, kipulea xerretan ebagi eta orio apur baten prijutuko dogu. Zerba orriak gehitu eta su ez tian erregosiko dogu minutu bi inguru. Saldea bota eta irabiako dogu. Beharrezkoa bada, gatza zuzenduko dogu. Saltsea orri-mamiei botako deutsegu gainetik.

Tartaletak,
nocilla eta masusta
gorriakaz

a: www.confiesoqucocino.com

Osagaiak (4 lagunentzat):

–8 tartaleta
–200 g esnegain
–400 g nocilla
–Masusta gorri-kaxa txiki bat

Prestetako area:

Esnegaina ontzi baten ipiniko dogu eta irakiten hasten danean nocilla gehituko dogu. Eragingo dogu, ondo mamitzen dan arte. Hozten danean, tartaletak nahasiaz beteko dogu eta hozkailura sartuko doguz. Han ordu erdi inguru edukiko doguz. Masusta gorriak erabiliko doguz tartaletak apaintzeko.



TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torreleragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

**NEURTU
ZURE ERAKUNDEAREN
HIZKUNTZA EGOERA
6 PAUSOTAN
ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ**

**BETE ZURE
AUTO-DIAGNOSTIKOA**



Ziurtagiriaren
Elkartea

baieuskarari.eus

/baieuskarariziurtagiria

@baieuskarari

Lan eta bizi euskaraz

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBALTARITZA
Nerea Pedrosa Etxe, 517
COOP. SAKABERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi biren artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.

a: www.pasatiemposinfantiles.es



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Rocka puntua! (Pamiela), Alberto Irazu:
- Itzulera (Susa), Martin Bidaur.
- Zukafukamusuka, (Txalaparta) Ruiz de Munain, Judit.
- Poz Aldrebesa (Susa), Juanjo Olasagarrre.

HAUR ETA GAZTEENTZAT

- Nork agintzen du borobilean (Elkar), Uxue Alberdi eta Julen Tokero (il.).
- Aintzinako zuhaitza, Pirritx Porrotx eta Marimotots (Katxiporreta), Joan Mari Irigoien.
- Aitak esan dit (Ttarttalo), Astrid Desbordes eta Pauline Martin (il.).

MUSIKA

- Delorean (Elkar), Mikel Laboa.
- Hiri kristalezkoa (Elkar), Rafa Rueda.
- Geldialdi bakoitzean (Elkar), Beñat Igerabide.

Sudokua

3				9	2		4
8			5		3		
				3		6	
9			8	2	6	3	
			7		9		
	7		9				3
4	3					5	8
5	8	6			4		2

7	2	9	4	1	3	6	8	5
8	1	5	7	6	9	2	3	4
6	3	4	8	5	6	2	7	1
1	8	5	6	9	4	7	3	2
4	7	3	6	2	8	1	5	9
2	6	9	5	3	1	8	4	7
6	1	2	3	7	9	4	5	8
3	9	7	1	8	4	5	6	2
5	4	8	2	6	9	7	1	3

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

BIZKARGI
TABERNA ETA JAMARIA

Urkiola, 6 DERIO 944541655

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 – 639 58 25 47

Azokak

Zamudio

- > Nekazamudio. Abenduaren 2an, 11:00etan, Kultura Etxean.
- > Durangoko azokara joateko autobusa. Abenduaren 6an, 09:30ean, Txorierriko etorbideko geroalekuan. Itzulia: 14:30ean. Prezioa: 1 €. Bakarrik zamudioztarrentzat.

Erakusketak

Derio

- > X. Argazki Lehiaketaren lanak. Abenduaren 2tik urtarrilaren 15era.
- > Hegazkinen erakustaldia. Abenduaren 17an, 11:00etatik 14:00etara, frontoian. SUBYKE taldeak antolatua.

Larrabetzu

- > Gabonetako postalak. Abenduaren 13tik aurrera, Anguleri kultura etxean.

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: *Jenisjoplin*, Uxue Alberdiren eskutik. Abenduaren 14an, 19:00etan, Anguleri kultura etxean.

Ikastaroak

Zamudio

- > Zen meditazioa. Abenduaren 14an, 19:00etan, eskolako areto nagusian.
- > Udal ikastaroetan izena ematea: abenduaren 15a.
- > Umeentzako tailerra. Abenduaren 16an, 11:30ean, liburutegian.

Larrabetzu

- > Margogintza eta Patchwork. Izena ematea: abenduaren 11tik 15era, Anguleri kultura etxean.

Ikuskizunak

Sondika

- > *Kontari eta kantari* ipuin kontalaria (2-5 urteko umeentzat). Abenduaren 15ean, 18:00etan, liburutegian.

Derio

- > *Ane Monna, Oskola eta Karramarroi: Pepitaren liburu magikoa*. Abenduaren 19an, 17:30ean, Kultur Birikan. Tximintx euskara elkarteak antolatua.

Durangoko azoka. a: anboto.org



Campezo. a: escapadarural.com

Irteerak

Derio

- > Campezo – Murieta eta Acedo – Murieta. Abenduaren 17an, 07:30ean, Nagusien Etxean. Untza mendi taldeak antolatua.

Lezama

- > Gaztelumendi – Urrusti. Abenduaren 17an, 09:30ean, Lezamako eskolan. Gailur mendi taldeak antolatua.

Musika

Larrabetzu

- > Domekak Hori Baien: Errime eta Erraiak. Abenduaren 16an, 18:30ean.
- > Gabonetako kontzertua, Izar Argia abesbatzaren eskutik. Abenduaren 21ean, 19:30ean, Andra Mari elizan.

Tailerrak

Lezama

- > Irakurketa sustatzeko tailerrak, 3-8 urteko umeentzat. *Txomin eta urtaroen liburu handia*, abenduaren 12an; *Kattalin eta animalien liburu handia*, abenduaren 14an. Biak Ludotekan, 18:00etan.

Txapelketak

Sondika

- > XXVI. Gabon-postal lehiaketara lanak aurkeztea: abenduaren 12ra arte. Oinarriak, Udaletxean eta liburutegian. Sariak ematea: abenduaren 20an, 19:30ean, liburutegian.

Derio

- > X. Argazki Lehiaketaren sariak banatzea. Abenduaren 2an, 12:00etan, Kultur Birikan. DATEk antolatua.

Bestelakoak

Loiu

- > Larrondon postontzia ipintzea, Olentzerori gutunak bidaltzeko. Abenduaren 15ean, 18:00etan.
- > Gabonetako argien piztea, Zabaloetxen. Postal lehiaketaren sariak banatzea, eta txokolatada. Abenduaren 15ean, 20:00etan.

Zamudio

- > Lagunandre elkartearen urte amaierako bazkaria. Abenduaren 2an.
- > Adintsuen elkartearen urte amaierako bazkaria. Abenduaren 16an, 14:30ean, Aretxarten.

Larrabetzu

- > Gure Etxeako Gabonetako bazkaria. Abenduaren 16an, 14:00etan.

ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburategietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota:

30 euro _____ Beste bat _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordetako dira. Fitxategiaren erantzulea TOTODAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatzeko dugu ulertuko duzu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).



GARRANTZITSUENA ZU ZARA



Derio



Derioko Zerbitzu eta Merkataritzako
Elkarte Profesionala

anarik paraje!

Asociación Profesional de
Comercios y Servicios de Derio



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO